

FORMAKUNTZA



Idazketa eta edizioa:



Diru-laguntzaileak:



DUALA

FORMAKUNTZA DUALA

Formakuntza Duala (FD) prestakuntza aldia heziketa-zentroan eta enpresan txandakatzean datza.

Gehienbat Lanbide Heziketako erdi zein goi mailako zikloetan burutzen da, baina azkenaldian unibertsitateko zenbait gradu eta masterretan hau egiteko aukera ere badago.

Ikasleak zer diote honen aurrean?

FORMAKUNTZA DUALA AUKERATZEKO IKASLEEN HAINBAT ARRAZOI

- + Lan esperientzia lortzea.
- + Soldata bat irabaztea.
- + Lan mundua ezagutzea eta honetan ezaguna izatea.
- + Ikasitakoa praktikan jartzea.
- + Praktiken ondoren lana aurkitzeko aukeragatik.
- + Errutina eta ohitura batzuk hartzeko.

FORMAKUNTZA DUALA EZ AUKERATZEKO IKASLEEN HAINBAT ARRAZOI

- Jasotzen den soldata oso eskasa delako.
 - Lan karga handia suposatzen duelako.
 - Ematen diren baldintzak asko hobetu daitezkeelako.
- “Para que nos exploten paso”



Beste formula batzuk aukeratzen dituzte ere: Erasmus, Seneca, Curriculum-praktikak...

FORMAKUNTZA DUALEAN SAKONTZEN

FD bekarekin (konbenioa) zein lan kontratuarekin (prestakuntzarako edota ikaskuntzarako kontratuak) burutu daiteke. Desberdintasun batzuk:

	BEKA (KONBENIOA)	LAN KONTRATUAREKIN
Adina	16 urtetik gora	16 – 25 urte artean (Langabezia tasaren arabera 30 urtera arte igo daiteke)
Gizarte Segurantzaren kotizatu		
Langabeziako prestakuntza ekonomikoa jasotzeko aukera		
Ordainsaria (gehienetan 500-750€ artekoa)	LGS ⁽¹⁾ kontuan hartuz, lanaldiarekiko proportzionala, baina LGSren %60a gutxienez	Enpresan beteko den lanpostuaren hitzarmenaren arabera
Ordu kopurua	Gutxienez lanaldiaren %40 gehienez %75	
Aldibaterakotasuna	2 edo 3 urte (4 urtez, 4. urtea atzerrian)	
Noiz hasten da ikasturtea?	Ekainean, irailean edo martxoan ⁽²⁾	Ekainean
Aldi baterako ezintasunak edo bajak	EZ du ETENGO kontratuaren iraupenaren zenbaketa derrigorrez (Baja batengatik lanean ematen ez diren orduen berreskurapena enpresaren eta ikasketa zentroaren arteko konbenioaren arabera)	Kontratua iraupenaren zenbaketa ETENGO du (Baja batengatik lanean ematen ez diren orduak berreskuratu behar dira)
Enpresan emandako denbora antzintasunean kontuan hartzen da		

⁽¹⁾ LGS: Lanbide arteko batez-besteko soldata

⁽²⁾ Gehienez bi modulu egiteke duten ikasleentzat

Iturriak: FP Dual, laburpen gida / LANGILEEN ESTATUTOA (11. Artikulua) Prestakuntza Kontratuak.
ERREGE DEKRETUA 1529/2012, azaroaren 8 koa, prestakuntza eta ikaskuntza kontratua garatu eta lanbide-heziketa dualeko oinarritzko alderdiak arautzen duena. (III. Titulua: Hezikuntza sistemaren Lanbide Heziketa Duala)



COVID-19AREN ERAGINA FORMAKUNTZA DUALEAN

Formakuntza Duala sortu zenetik urtetik urtera ikasle, ikastetxe eta enpresa kopurua igotzen joan da.

Ikasle kopuruak gora egiten jarraitzen badu ere, COVID-19aren krisiaren ondorioz, egoera honi buelta eman zaio (ia erdira murriztu da). Enpresak lortzeko arazoak egon dira, asko atzera bota direlako, ondorioz ikasle asko kanpo geratu dira.

ERTE/ERE egoeran zeuden enpresak ikastetxeek baztertu dituzte zuzenean inkoherentziagatik.

COVID-19aren aurretik Formakuntza Dualean hasi zirenak, egoera ezberdinak jasan zituzten: ERTEak edo jardueraren etenaldia eta egonaldien epea luzatzeko beharra, telelana egiteko beharra edo zuzenean kontratua bertan behera geratzea, besteak beste. Oinarrizkoak ziren sektoreetan praktikak egiten jarraitu zuten (zerbitzuetan).

Datuak dioten bezala FD egiten zuten ikasle gehienek lan kontratua lortzen zuten bukatzerakoan (Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako web orrialde ofiziala):



Ikasleen **96%**
2019



Ikasleen **70%**
2021




GENEROA

Formakuntza Duala industrian eta sektore maskulinizatueta emanen da batik bat. Gainera feminizaturiko gradueta Formakuntza Dualeko aukera generoari dagokionez parekatua egoteak Formakuntza Dualak maskulinizatuta dagoela adierazten du.

Emakumeak zerbitzuetan zentratzen dira batik bat, hauetan Formakuntza Duala ezartzeko zailtasun handiagoak daude, pertzepziozko ikasketak direlako (*). Ondorioz emakumeek diskriminazioa jasotzen dute Formakuntza Dualean parte hartzeko.

**Beharrezkoa da genero
perspektiba bermatzeko
egokitzapenak egiten jarraitzea.
Emakumeek pairatzen duten
lan-segregazioari aurre egiteko.**



2 urteko planak, lantokiko prestakuntza + LH Duala sortu dute, hain zuzen ere parte hartzeko zailtasun bereziak dauden sektoreetan egiteko aukera emateko.

(*) Pertzepziozko ikasketetan lan kontratu bat lortu ahal izateko aurretik titulua eduki behar da. Beraz, hauetan ezin da Formakuntza Duala kontratu baten bitartez burutu.

FORMAKUNTZA DUALA UNIBERTSITATEAN / UNIBERTSITATEAREN EGOERA

Formakuntza Duala Unibertsitateko hainbat ikasketetan burutzeko aukera eskaintzen da ere Euskadiko hiru unibertsitateetan; EHU, Mondragon unibertsitatean eta Deuston gero eta gradu eta master gehiagotan eskaintzen da.

Eredu hau unibertsitatean ezartzea zailagoa da.



Enpresek pizgarri edo dirulaguntza gutxiago jasotzen dituzte unibertsitateko ikasleak hartzeagatik, horrek enpresak lortzea zailtzen du.



Unibertsitate arloko burokrazia maila altuak eta araudi propioa ez izateak kontratazio aukerak zailtzen ditu.



Ezin dira enpresa edo erakunde publikoak izan, enpresa pribatuak izan behar dira, ondorioz praktikak egiteko aukerak murrizten dira.

Ezinbestekoa da unibertsitatean formula berriak ezartzea honi aurre egiteko eta Formakuntza Duala gehiago zabaltzeko.



ANIZTASUN FUNTZIONALA

Formakuntza Dualean parte hartzeko kontuan hartzen da ikaslearen espediente eta jarrera, inolako diskriminaziorik egin gabe, kolektibo guztiei parte hartzeko aukera eskainiz.


Azterlanean, aldiz, ez dira topatu aniztasun funtzionala duten pertsonak Formakuntza Dualean.

Pertsona hauek enplegu babestuan kokatzen dira gehienetan. Enplegu arruntean, baldintza arruntetako kontratua enpresek pizgarri bereziak jasotzen dituztenean baino ez dute lortzen.

Formakuntzarako kontratuarekin:



%33 edo gehiagoko desgaitasuna egiaztatuta duten pertsonen kasuan, praktiken iraupena gehienez **4 urtera arte luzatu daiteke** (baldin eta eskatutako gutxiengo ezagutza mailara iritsi ez bada).



Desgaitasun intelektualarekin, **prestakuntza eta ikaskuntza denboraren %25era arte errehabilitaziora eta gainkuntzara bideratu** ahalko da.

Administrazioek aniztasun funtzionala duten pertsonekin kontratuak sustatzeko neurriak hartu behar dituzte, enplegu babestutik haratago dauden aukerak ere eskaintzeko.

GAZTE MIGRATZAILEEN EGOERA

Azterlanean, ez da jatorri anitzeko gazteekin topo egin.

Gazte migratzaileen kolektiboa ez da kolektibo homogeen bat, eta ezberdintasun asko ematen dira. Gazte hauek pairatzen dituzten egoera batzuegatik Formakuntza Dualetik at geratzen dira.

Formakuntza Dualean, alde batetik, prestakuntza zentroa dago, eta bestetik enpresa.

Egoera administratiboa arautua ez duten gazteen kasuan:

Ikasteko matrikula egiteko aukera dute, baina ez da lan kontratu bat formalizatzeko; izan ere, honetarako egoera administratibo erregularrean egon behar dutelako, beraz, FD egiteko aukera galtzen dute.



